

Enpresa Jarduerak Berriak Abiarazteko Laguntzak Ekintzailetzako Tokiko Proiektuen Esparruan

Diruz lagun daitekeen jarduera:

- Edozein jarduera-adarretan eta arduraldi eskusiboko erregimenean. **proiektua enpresa edo enpresa abian jartzeko beharrezko den laguntza eta tutoretza**
- Kapitulu honen babespean diru-laguntza jaso ahal izango da negozio-idea bat aztertu eta garatzeko,
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntza hauetako pertsona onuradunen tutorizaziorako, selekziorako eta/edo akonpainamendurako Egaz Txorierri Lanbide-ren erakunde laguntzailea dela eta, akonpainamendua eta aholkulartiza EGAZ Txorierri eskainiko du.

Diru-laguntza kopurua:

- EGAZ Txorierri **gehenez ere 15 laguntza emango ditu** garapenerako.
 - **6 laguntza 18 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako pertsonentzat.**
 - **9 laguntza 25 urte edo gehiago dituztenentzat.**
- **Nolanahi ere, proiektuak aurreikusi behar du emakume ekintzaileen % 40.**
- EGAZ Txorierri 30 egun baliioduneko epea edukiko du, ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita, laguntzak eskuratzen dituzten pertsona ekintzaileei laguntzeko eta/edo tutoretza emateko jarduketeki ekiteko.
- Edonola ere, Egaz Txorierriren webgunean (www.txorierri.eu) jakinaraziko da laguntzen behin betiko kopurua eta zenbatekoa, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denean.

Prestazio ekonomikoa:

- **Sustatzaileei enpresa-idea garatzeko eman beharreko laguntza, 1.500 eurokoa izango da sustatzaile bakoitzeko.**



- **Zenbateko horrek % 15eko igoera izango du, baldin eta eskabidea aurkezteko unean sustatzai-lea 18 urtetik gorakoa eta 25etik beherakoa bada. Horrez gain, beste % 15eko igoera izango du baldin eta sustatzailea emakumezkoa bada.**

Beste laguntza batzuk jasotzea:

Aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarriak izango beste edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk autoenplegua sustatzeko emandako edozein motatako diru-laguntza edo laguntzarekin

Onuradunak:

Kapitulu honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan ahalko dira eskabidea aurkezteko unean eskakizun hauek betetzen dituzten ekintzaileak.

- EAEn erroldatuta egotea eta benetako egoitza bertan izatea.
- Langabe izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian lehen-dik alta emanda ez izatea.
- Edozein jarduera-adarretako enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko ideia bat izatea.
- Deialdi honen 3. artikuluan aurreikusitako erakundeetako bateko aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesuan sartuta egotea.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak pertsona ekintzaileei laguntza emateko kudeatutako deialdi-dietako laguntzen onuradun ez izana 2013ko, 2014ko edo 2015eko ekitaldietan. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendariaren 2013ko urriaren 17ko ebazpenaren (2013-10-18ko EHAA) eta 2014ko uztailaren 30ekoaren (2014-08-25ean), 2015eko uztailaren 23koa (2015-08-27ko EHAA). bidez, hurrenez hurren, argitaratu ziren deialdi horiek.
- Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak lortzeko aukerarik ez dute izango diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigor- edo administrazio-arloan zigortuta dauden pertsona fisikoek zein erakundeek, eta horretarako ezgaitzen duten legezko debekuen eraginpean daudenek. Halakoetan sartzen dira otsailaren 18ko 4/2005



Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, adierazitakoari jarraituz, sexu-diskriminazioagatik emandako zigor eta debekuak.

- Bestalde, onuradunei ez zaie esleitutako laguntzarik ordainduko, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntzengatik zigor-prozedura batean edo diru-laguntzak itzultzeko prozedura batean sartuta badaude, eta prozedura horiek oraindik ere izapidetzen ari badira.

Onuradunak izateko konpromisoa:

Laguntza horien onuradunak izateko, hauxe egiteko konpromisoa hartu behar dute sustatzaileek:

- Arduraldi eskusiboan aritzea enpresa edo negozioa abian jartzeko jardunean.
- Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek enpresa edo negozioa ezartzeko zehaztutako aholkularitzako eta laguntzako jarduera guztietara joatea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea, gehienez 3 hilabeteko epean, negozioa abian jartzeko diruz lagundutako tutoretza eta laguntzako prozesua amaitzen denetik zenbatzen hasita.
- Helburu bererako beste laguntzarik ez jasotzea.

Epe horretan ekintzaileek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematen ez badute, diru-laguntzaren bigarren ordainketa jasotzeko eskubidea galduko dute.

Laguntzak emateko prozesua :

- Eskabidea egiteko epea amaitzen denean, EGAZ Txorierri aztertu egingo du aurkezturiko dokumentazioa, eta bazter utziko ditu deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.
- **Diru-laguntzak zozketa bidez emango dira, uztailaren 5ean**, Lanbidek EGAZ Txorierri azkenean ematen dizkion laguntzen kopurua eta aurrekontu-kreditua amaitzen diren arte, betiere deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen badira.



www.txorierri.eu
empleo@txorierri.eu

Tel. 944 536 370

Txorierri Etorbidea, 46
48150 Sondika - Bizkaia

- EGAZ Txorierri atzera botako ditu eskaerak, laguntza-kopurua eta/edo dagokion partidako kreditua amaitzen denean.

Laguntzak eskatzeko epea eta lekua :

Oinarri hauek argitaratzen direnetik 2016eko uztailaren 1ako 13:30era arte aurkez daitezke laguntzen eskaerak eta eskatutako dokumentazioa, hemen:

EGAZ Txorierri (Behargintza Txorierri, SL)

Txorierri etorbidea 46, 13 A

Sondika

Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era.


Aurkeztu behar diren agiriak:

- Eskaera-orria (I. eranskina).
- NANaren fotokopia.
- EAEko errolda-agiria (udaletxean eskatzen da).
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman ez dela egiaztatzen duen agiria (Ogasunean eskatzen da).
- Lan-bizitzaren txosten eguneratua; hemen eskura daiteke: [www.seg.social.es/sede electrónica / ciudadanos/ servicios via sms/ vida laboral/ acceso al servicio](http://www.seg.social.es/sede_electronica/ciudadanos/servicios_via_sms/vida_laboral/acceso_al_servicio)).
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda egon den aldietako ziurtagiria (Lanbideren bulegoetan eskatzen da).
- Enpresaren Bideragarritasun Plana

Diru-laguntza ordaintzeko modua:

EGAZ Txorierri ordainduko ditu laguntzak, honela:

- Lehen ordainketa, emandako diru-laguntzaren % 43,9ekoa, laguntza eman ondoren gauzatuko da, 2016eko aurrekontuko ordainketa-kredituaren kontura, bideragarritasun-



plana osatu ondoren eta enpresa-proiektua ezartzeko aholkularitza-prozesua hasi ondoren.

- Bigarren ordainketa, gainerako % 56,1koa, 2017ko ekitaldiko konpromiso-kredituaren kontura, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman ondoren. Ordainketa egin aurretik, ekintzaileak erakunde laguntzaileari aurkeztu behar dio Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan emandako altaren kopia eta amaierako memoria, egindako jardueren xehetasunak adierazita. Horretarako hiru hilabeteko epea du, laguntzeko prozesua amaitutako egunetik zenbatzen hasita.
- **Horretarako, EGAZ Txorierriko Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua aitortutako funtsak jaso behar ditu alde aurretik**, tokiko proiektu ekintzaileen esparruan enpresa-ideia bat sustatu nahi duten pertsonentzako laguntzak kudeatzeko.
- Era berean, diru-laguntza jaso dutenei laguntzak eman eta ordaintzeko, amaitu egin behar da oraindik ere izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura, baldin eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak emandako antzeko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan abiatu bada.

Diru-laguntza justifikatzea :

- **Laguntzen onuradunek jardueren memoria bat aurkeztu beharko diote EGAZ Txorierri, hilabeteko epean, laguntzeko eta/edo tutoretza emateko prozesua amaitutako egunetik zenbatzen hasita; memoria horretan, enpresa-proiektuaren bide-ragarritasunaren azterketan egindako lanen xehetasunak adieraziko dira, bai eta proiektuaren bideragarritasunari buruzko txostena ere.** Laguntzeaz eta/edo tutoretzaz arduratutako erakundeak sinatu beharko ditu dokumentu horiek.
- Ekintzaileak ez badu alta ematen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan 10.2.c) artikuluan ezarritako epean –3 hilabete, negozioa abian jartzeko tutoretza eta laguntzeko prozesua amaitu-tako egunetik zenbatzen hasita–, onetsitako diru-laguntzaren bigarren zatia jasotzeko eskubidea galduko du, horretarako dagokion espedientea izapidetu ostean.
- Diru-laguntza aurreikusitako epeen barruan justifikatu ezean, jasotako diru-laguntza guztia itzuli beharko dute onuradunek; horrenbestez, artikulua honetan aurreikusitako epeak amaitzen badira justifikazioa gauzatu gabe, dagokion prozedurari ekingo zaio jasotako

zenbatekoak itzuli beharra adierazteko eta ordaintzeke daudenak eskuratzeko eskubidea galdutzat jotzeko.

Pertsona onuradunen betebeharrak

Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak izango dira azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2. artikuluan jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

- Frogatzea diru-laguntza emateko edo jasotzeko bete beharreko betekizunak eta baldintzak betetzen dituela, baita jarduera egin izana ere.
- honako hauen egiaztatze- eta kontrol-jarduketari baiezkoa ematea: erakunde laguntzaileak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
- helburu berberarekin beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.
- diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeraren bat, objektiboa zein subjektiboa, aldatu bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.
- diruz lagundutako jardueren helburuari edo izaerari funtsean eragiten dion zerbait bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari

Ez betetzeak eta emandako diru-laguntzak itzultzea

- Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude deialdi honetan aurreikusitako laguntza jaso duten pertsonak zein erakundeak, edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du; ebazpen horren bitartez, jasotako kopuruak osorik edo zati batean itzuli behar dituztela adieraziko du, eta kopuru horiei diru-laguntza ordaintzen den unetik aurrerako legezko interesak erantsi beharko zaizkie, dagozkion gainerako

ekintzak aparte utzi gabe, hala xedatuta baitago abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan, horrek arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra.

- Aipatutako laguntza eta/edo tutoretzako prozesua aldeztatik utziz gero, horren zergatia edozein dela ere, hauxe izango da emandako diru-laguntza itzultzeko araubidea:
 - a) Prozesua hasi eta hilabete igaro aurretik utziz gero, jasotako diru-laguntza osorik itzuli beharko du, eta egin gabe dauden ordainketak ezeztatuko dira, horrelakorik badago.
 - b) Lehenengo hilabetea igaro ondoren eta laguntza-lana amaitu baino lehen utziz gero prozesua, itzuli beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, jasotako zenbatekoari 500 euro kenduko zaizkio.Halaber ordaindu gabe dagoen diru-laguntzaren bigarren zatia jasotzeko eskubidea galduko du
- Itzuli beharreko kopuruei aplikatu egingo zaie diru-laguntzaren ordainketaren unetik dagokien berandutze-interesa..
- Nolanahi ere, proiektua bertan behera utzi aurretik gauzatutako jardueri buruzko memoria aurkeztu beharko da. Bestela, ulertuko da eusten zaion diru-laguntzaren zatia ez dela justifikatu, eta diru-laguntza osorik itzuli beharko da.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntza jaso duen pertsonari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, jakinaraziko dio egokitzen jotako alegazioak edo egiaztagiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela. Prozedura hori hasten denean, eten egingo dira egiteko dauden ordainketak, halakorik egonez gero.
- Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan, halakorik aurkeztu ez badu edo ez badira onartu, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko epea, gehienez, 12 hilabetekoa izango da.
- Ebazpenak arauen bat bete gabe utzi dela iritzi, eta diru-laguntza osorik edo zati bat jasotzeko eskubidea galdutzat emanez gero, interesdunak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-kopuruak; horretarako, bi hilabeteko epea izango du, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko da.
- Borondatezko epe horretan diru-laguntza itzultzen ez bada, diru-laguntza berreskuratzeko



premiamendu bidera jotzeko izapideei ekingo zaie.

Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua

- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, deialdi honetan araututako laguntza-eskabideak betetzearen ondorioz lortutako datu pertsonalak bere titulartasuneko fitxategi batean sartuko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak. Fitxategi hori, «Enplegurako eta prestakuntzarako diru-laguntzak» izenekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoak datu pertsonalak biltzeko dauzkan fitxategiak arautzen dituen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 10eko Aginduaren bidez dago araututa.
- Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte interesdunek, legeak onartzen duen eran; horretarako, idazki bat bidali beharko dute hori jakinaraziz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 01009, Vitoria-Gasteiz).

Diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko araubide juridikoa.

Diru-laguntzen programa honetan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginean –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua onartzen duena– eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako diru-laguntzen erregimen juridikoa izango da aplikagarri, horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezarri baitziren horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen eskakizunak, araubidea eta betebeharrak.

EGAZ Txorierriko Zuzendaritza Nagusiari (Behargintza Txorierri, SL) dagokio oinarri hauek eta oinarrietatik eratortzen diren agiri guztiak interpretatzea eta haiek betetzean sortzen diren zalantzak argitzea